



GIZA GARAPENAREN DESBERDINTASUNAK

POBREZIA



OPAROTASUNA



GIZARTE ZIENTZIAK, GEOGRAFIA ETA HISTORIA

DBHko 3. maila

Arrate Uranga
2012ko urtarrilean berrikusia

LAN-ESKEMA

Irakasgaiak: gizarte zientziak, geografia eta historia

Gaia: Giza garapenaren desberdintasunak.

Maila: DBHko 3. maila

Saio kopurua: 8 / 9

Proposamenaren testuingurua

Sekuentzia didaktiko labur hau giza garapenaren zergatiak ulertzeko proposamena da. Garapena neurtzeko hainbat irizpide erabiltzen dira. Herri garatu eta ez garatuak ibilbide desberdinak gauzatu dituzte, eta horiek gainditzeko, beharrezkoa da bestelako gizartea –elkartasuna justiziaren oinarri dela ulertzen duena eraikitzea. Behar-beharrezkoa da munduko herritar gisa jokatzeko eta erantzukizunak hartzea.

Landuko diren oinarritzko gaitasunak

Ikasten ikasteko gaitasuna.	2., 3., 4., 5., 6., 7., 8., 9., 10., 11., 12., 13. eta 14. jarduerak
Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna.	1., 3., 5., 6., 8., 11. eta 14. jarduerak
Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna	8. eta 12. jarduerak
Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna.	1., 2., 3., 4., 5., 6., 7., 8., 9., 10., 11., 12., 13. eta 14. jarduerak
Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna.	2., 3., 4., 5., 6., 7., 8., 9., 10., 11., 12., 13. eta 14. jarduerak

Helburu didaktikoak:

1. Herrialdeen garapenaren desberdintasunen zergatiak eta ondorioak ulertzea.
2. Eztabaidak sortzen direnean, bizikidetzarako eta arazoei aurre egiteko jarrera lantzea.
3. Herrialdeen garapenaren maila desberdinen aurrean, jarrera kritikoa izatea, eta pertsonen arteko eta munduko herrialdeen arteko desberdintasunak gaitzestea.
4. Herrien garapena denon erronka eta ardura dela ulertzea.
5. Gizartearekiko konpromisoa sustatzea. Herrialde txiroenekiko elkartasun-jarrera izatea.
6. Talde-lanak egitea, eta egungo gizartearen errealitateari buruzko debateetan parte hartzea, jarrera ekintzaile, eraikitzaile, kritiko eta tolerantea erakutsiz.
7. Debateetan iritziak behar bezala oinarritzea eta adieraztea; eta, arazoei aurre egiteko, elkarriketa nahitaezkoztat jotzea.

Edukiak:

- Egun, munduan gertatzen ari den aldaketa()eta desoreka.
- Merkatuen mundializazioa.
- Giza garapenaren desberdintasunak.
- Lankidetzarako politika.
- Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala.

Jardueren sekuentzia:

Plangintza	– Abiapuntua: sentsibilizazioa eta ikerketarako motibazioa (1., 2. eta 3. jarduerak). – Helmuga: norberaren konpromisoa: zer egin dezakegu? (12., 13. eta 14. jarduerak)
Burutzea	– Lana garatzea: garapenaren desberdintasunen zergatiak eta ondorioak hausnartzea. Herri pobreak eta aberatsak sailkatzeko indizeak aztertzea. Garapenerako oztopoak identifikatzea (4., 5., 6., 7., 8., 9., 10. eta 11. jarduerak). – Taldeko lana eta banakako lana. – Arazoa egoki ulertzeko beharrezko baliabideen jabetza.
Erabilpena	– Lortutako informazioa eta baliabideak hainbat testuingurutan -zahar eta berrietan- aplikatzea. – 8., 9. eta 10. jarduerak.

Ebaluazioa:**Adierazleak**

- Ea ezagutzen dituen ekonomiari buruzko oinarrizko kontzeptuak.
- Ea gai den eguneroko bizimoduan ohiko kudeaketak egiteko.
- Ea ezagutzen dituen egungo ekonomia globalizatuaren funtsezko elementuak.
- Ea zenbait herrialde eta lurraldetako ezaugarriak aztertzen dituen, adierazle sozioekonomikoa kontuan hartuta.
- Ea lortutako informazioa erabiltzen duen, zenbait eremuren eta herrialderen arteko garapen mailaren aldeak nabarmen erakusten dituzten egoerak ezagutzeko.
- Ea hartzen duen kultura-aniztasuna herrien eta gizabanakoen nortasun eskubidetzat.
- Ea parte hartzen duen eta laguntzen duen bere inguruko arazoetan.
- Ea parte hartzen duen taldekako lanak antolatzen eta garatzen; ekintzailea den eta besteen ekarpenak onartzen dituen.
- Ea errespetatzen dituen denen artean ezarritako arauak.
- Ea arduratsua den.

Tresnak

- Idatzizko probak.
- Ikasleen behaketa.

1. JARDUERA

Irakurri arretaz testua.

Justiziak elkartasuna -haren osagarririk behinena- behar du (...). Barne produktu eta per capita errenta handikoak izaten dira, hain zuzen ere, gizarte eta herrialderik aurreratuenak. Eta herrialde horietan izaten dituzte zerbitzu sozial eta publiko – hezkuntza, osasuna, garraioa– egokiak, eraginkorrak eta duinak. Alabaina, justizia gabezia agerikoenak ondo dabilen gizarteetan, hots gizarte aurreratuetan, gertatzen dira.

Badirudi gizartea zenbat eta oparoago eta aberatsagoa izan, gizarte horren kideen arteko elkartasuna orduan eta txikiagoa dela, hau da, proportzioa alderantzizkoa da.

Vitoria Camps, Virtudes públicas. Espasa-Calpe, Madril, 1990

Testu honen ulermenak hitzak ondo ulertzea eskatzen du. Eztabaidatu taldeka eta adostu klase osoan ondorengo hitzak:

JUSTIZIA

.....

ELKARTASUNA

.....

BARNE PRODUKTU GORDINA (BPG)

.....

PER CAPITA ERRENTA

.....

ZERBITZUA

.....

2. JARDUERA

Eztabaidatu klasean testuko ideia garrantzitsuenak:

Justiziak elkartasuna behar du

Zergatik behar du justiziak elkartasuna?

(...)Barne produktu eta per capita errenta handikoak izaten dira, hain zuzen ere, gizarte eta herrialderik aurreratuenak (...) Alabaina, justizia gabezia agerikoenak ondo dabiltzan gizarteetan, hots gizarte aurreratuenetan, gertatzen dira.

V. Campsek dio gizarte aurreratuenetan justizia gabezia agerikoena izaten dela. Zergatik?

(...)Badirudi gizartea zenbat eta oparoago eta aberatsagoa izan, gizarte horren kideen arteko elkartasuna orduan eta txikiagoa dela, hau da, proportzioa alderantzizkoa da.

Zein da testuak aipatzen duen erlazio proportzionala? Pentsatzen duzu horrela dela? Zergatik?


3. JARDUERA

Zergatik daude desberdintasunak? Zergatik herri pobreak eta herri oparoak?

Pobrezia ez da halabeharra eta ez dator ezbehar edo hondamendietatik bakarrik. Pobrezia dago herri eta talde batzuek aberastasunaren sorburuak kontrolatzen eta menperatzen dituztelako: lurra, energia, merkatua, teknologia, zientzia, informazioa, kultura, armak... Gaur egun, aberatsenen % 20k munduko sarrera globalen % 86 jasotzen dute; txiroenen % 20k, ordea, % 1,3 baino ez.

Nazio Batuetako adituek diotenez, pobrezia desagerraraz liteke. Nahikoa litzateke sarrera globalen % 1, eta herrialde aberatsen sarrera nazionalen % 2 inbertitzea. Munduan 1.300 milioi behartsu omen daude. Pobrezia gero eta handiagoa da.

Alboan



Eztabaidatu taldeka honako auzi hauek:

3.1. Zein da pobrezia arrazoi nagusia?

.....

.....

.....

.....

.....

3.2. Zein proportziotan dago banatuta munduko aberastasuna? Zein da zuen iritzia banaketa horren aurrean?

.....

.....

.....

.....

.....

3.3. Nazio Batuen arabera, nola desagerraraz liteke munduko pobrezia?

.....

.....

.....


.....

.....

MUNDUAREN ARGAZKIA

4. JARDUERA

Begiratu arretaz marrazkiei; gero, ideia jasa egingo dugu.



5. JARDUERA

Azter ditzagun herri pobreak eta aberatsak sailkatzeko irizpideak.

Giza Garapen Indizea (GGI) Nazio Batuek sortutako adierazlea da, biztanleen ongizate maila neurtzeko. Hiru parametro erabiltzen ditu:


1. Bizitza luzea eta osasuntsua neurtzen duena (jaioberrien bizi itxaropena)
2. Hezkuntza, helduen alfabetatzeko indizearen eta 1. eta 2. hezkuntzako eta unibertsitateko matrikulazioaren konbinazioaren bidez kalkulatzen dena.
3. Bizitza duinaren maila, biztanleko Barne Produktu Gordinaren (BPG) bidez dolarretan neurtzen dena.

5.1. GGIk “guztien ongizatea” adierazi nahi du, erabiltzen dituen goian aipatutako hiru elementu horiekin.

-Eztabaidatu gelan nola ulertzen dugun “guztien ongizatea”.

Ezagutzen duzu “guztien ongizatea” adierazten duen beste elementurik hiru parametro horietatik kanpo? Aipatu zein, eta arrazoitu.

5.2. Begiratu mapari. Bertan, 2006. urteko txostenaren arabera, mundu zabaleko herrietako GGI adierazten da. Zergatik daude desberdintasun horiek? Jaso denon artean zergatien zerrenda.




Desberdintasunen zergatiak

- 1.
- 2.
- 3.
- 4.
- 5.
- 6.

6. JARDUERA

GGIren arabera, herri pobreenak honako hauek dira: Kongoko Errepublika Demokratikoa, Etiopia, Mozambike, Ginea Bissau, Burundi, Mali, Burkina Faso, Niger eta Sierra Leona.

6.1. Kokatu herri horiek mapan.



6.2. Zerrendatu pobreziaren eta garapenaren zutabeetan honako kontzeptu hauek:

1.- berdintasun eskubidea; 2.- emakumeen estatus apala; 3.- desnutrizioa; 4.- biztanle eskolatuak; 5.- ugalkortasun- eta umeen heriotza-tasa handiak; 6.- ugalkortasun- eta heriotza-tasa txikiak; 7.- eskolatzeko-tasa urriak; 8.- lan egiteko aukera; 9.- langabezia; 10.- goi-teknologia; 11.- oinarritzko zerbitzurik eza; 12.- hondakin produkzio handia.

POBREZIA	GARAPENA

6.3. Banatu gela 9 taldetan; hartu herrialde bana, eta aztertu zergatik diren munduko herri pobreenak. 6.2. atalean landutako kontzeptuak lagungarriak izan litezke herrialde bakoitza aztertzeko.

7. JARDUERA

Azkeneko hamarkadetan, herri askotako joera nagusia garapen ekonomiko bultzatzea izan da. Garapen ekonomiko hori, oro har, ona izan da. Bizi-baldintza eskasak zituen biztanleriaren zati bati baldintza hobekiak ekarri dizkio. Baina, garapen ekonomikoak ondorio txarrak ere ekarri ditu. Adibidez, neurri egokiekin bideratzen ez bada, gizarte barruko desberdintasunak areagotu egiten dira: aberatsak aberatsago eta txiroak txiroago egiten ditu.

Konplexua da ulertzea herri batzuk zergatik diren pobre eta beste batzuk aberats. Herri batzuek errazago bideratu ahal izan zuten garapen ekonomikoa, eta, horri esker, aberatu egin ziren. Kontua da herri batzuek -arinago edo motelago- baldintza ekonomiko onak lortu dituztela eta beste batzuek, kontrako baldintzak izan dituzte. Zein dira kontrako baldintza horiek?

7.1. Aztertu gelan herri pobreen garapenerako oztopoak. Osatu oztopo horien zerrenda denon artean.

GARAPENAREKO OZTOPOAK
1. Isolamendua: produkzio- eta merkataritza-jardueren munduko gune handietatik urrun egotea.
2. Baliabide naturalak ardurarik gabe ustiatzea.
3. Azpiegiturak ez izatea. Nekazaritza garatu eta mekanizatu gabea.
4. Analfabetismoa.

5. Kanpo-zorra.
6.
7.
8.

KANPO-ZORRA

Aztertutako jarduerekin argi gelditu da munduan desberdintasun ekonomiko eta sozial ugari daudela. Kanpo-zorra desberdintasun horren arrazoietako bat besterik ez da.

Hemendik aurrera kanpo-zorraren inguruko ikerketa egingo dugu, hainbat informazio iturri erabilita. Azkenean, informea aurkeztuko dugu gelakideen aurrean, zergatiak eta arazoaren inguruko gorabeherak planteatzeko.



8. JARDUERA

7. jarduerako zerrendan garapenerako hainbat oztopo aipatu dira, horien artean **kanpo-zorra**. Bilatu **kanpo-zorrari** buruzko informazioa. Idatz ezazu zeure definizioa.

Kanpo-zorrari buruzko informazioa bilatzen laguntzeko, beste baliabide batzuen artean, hona hemen web-orrialde batzuk.

<http://www.observatoriodeltrabajo.org/nueva/web/index.asp?pagina=573&idioma=3&entorno=>
www.un.org/spanish/millenniumgoals/index.html

DEFINIZIOA

.....

.....

.....

KANPO-ZORRA

Inperialismo kolonialista arrazoi garrantzitsua izan da mendekotasun ekonomikoa eragiteko. Hegoaldeko herrialdeek Iparraldekoen kredituak jaso zituzten beren garapena bultzatzeko; geroago, kreditu horiek gehi kreditu horiek eragindako interesak ordaindu beharko zituzten. Kredituen itzultzea eta horiek eragindako interes

izugarri handiak dira herrialde horiek pobretzeko eta mendeko bihurtzeko arrazoi nagusietako bat.



Kanpo-zorra da herrialde pobreek munduko herrialde kapitalista aberatsenetako banku, gobernu eta beste erakunde batzuei zor dieten dirua.

ZORRA SORGIN-GURPILA BIHURTZEN DENEAN

9. JARDUERA


GURE ZORRA BANKUAREKIN

Demagun 48.000 euroko hipoteka-mailegua eskatzen dugula, 10 urtean ordaintzeko. Urteko interes tasa % 4koa da hileko ordainketetan. Hilero 487 euro ordaindu behar dizkiogu bankuari. Saia zaitetz honako taula hau betetzen:

	ZORRA	GEHI HILABETE BATEKO INTERESAK	KEN HILEKO KUOTA
HASIERAKOA	48.000	48.160	47.673
LEHENENGO HILABETEKOA	47.673		
BIGARREN HILABETEKOA			
HIRUGARREN HILABETEKOA			
10. URTEKOA			

10. JARDUERA

10.1.



Interesak direla eta, zenbat ordaindu dugu hamar urtean?

Zenbat ordaindu dugu guztira hamar urtetan?

Konparatu bankuak utzi zigun diru kopurua eta ordaindu dugun kopurua.

Hilero zenbateko jakin bat itzuli behar zaio bankuari. Zenbateko horrek interesa eta maileguaren amortizazioa hartzen ditu barne. Kanpo-zorraren kasuan, ordaintzen den zenbatekoari *zorraren zerbitzua* deitzen zaio. Kanpo-zorra eragin duten maileguak interes-tasa aldakorrekoak ziren. Hori dela eta, nazioarteko ekonomiaren egoera aldatu zenean, interes-tasak igo egin ziren eta zorra izugarri handitu zen.

HERRIALDE BATZUETAKO DATUAK

HERRIALDEA	BPG osoa (Milioi \$)	Zor osoa (Milioi \$)	Biztanleria	Zorraren zerbitzua (esportazioa %etan)	Gastu militarra (BPGren %a)	Garapen erako Laguntza Ofiziala (BPGren %a)	Hezkuntza gastua (BPGren %a)
ARGELIA	132.700	33.260	31.000.000	% 33	% 4	% 0,8	% 5,6
BOLIVIA	21.700	5.174	8.000.000	% 33	% 2,1	% 14,6	% 6,6
INDIA	1.493.000	89.827	982.223.000	% 27	% 2,8	% 0,6	% 3,5
SIERRA LEONA	2.400	1.167	4.568.000	% 46	% 5,9	% 24,1	% 0,9
VENEZUELA	181.400	35.344	23.242.000	% 20	% 1,2	% 0,1	% 5,2
ZAMBIA	7.900	7.113	8.781.000	% 25	% 1,8	% 19	% 1,8

10.2.

Ordenatu herrialdeak Barne Produktu Gordinaren arabera
1.
2.
3.
4.
5.
6.
Egin BPGa zati populazioa, eta sailkatu herrialdeak irizpide horren arabera.
1.
2.
3.
4.
5.
6.
Ordenatu herrialdeak Zor Osoaren arabera.
1.
2.
3.
4.
5.
6.
BPGaren zenbat ehuneko hartzen du kanpo-zor osoak? Ordenatu herrialdeak emaitza horren arabera.
1.
2.
3.
4.
5.
6.
Ordenatu herrialdeak Zorraren Zerbitzuaren arabera (esportazioak %etan)
1.
2.
3.
4.
5.
6.
Kalkulatu aipatutako herrialdeetako biztanle bakoitzaren zorra eta ordenatu.
1.
2.
3.
4.
5.
6.



10.3. EZTABAIDA

Kanpo zorra aztertu ondoren, zer ondorio ateratzen duzue?

HERRIALDE EZ GARAUTUEN ARAZOAK KONPONTZEKO BIDEAK

GIZA ESKUBIDEEN ALDARRIKAPEN UNIBERTSALA (1948)	ZAMA EKONOMIKOA ARINTZEKO GIZARTE ELKARTASUNAREN BEHARRA
22. artikulua Pertsona orok du, gizarteko kide denez gero, gizarte segurantz izateko eskubidea, eta, herrialdearen ahaleginaz eta nazioarteko laguntzaz, Estatu bakoitzaren antolaketa eta baliabideak kontuan izanik, norbanakoaren duintasunerako eta nortasuna garatzeko ezinbestekoak diren ekonomia, gizarte eta kultura-mailako eskubideak asetzeko.	Gurea bezalako gizarteetan, zamarik handien zama ekonomikoa izaten da. Hori dela eta, gure diru-sarreraren zati bat ondasun komunerako ematea da gizarte elkartasunean parte hartzea. Guztien ongizatea eta interesak babesteko erabiltzen dira ekarpen horiek; adibidez, osasunean inbertituz. Baina ekarpen horiek giza sektore kaltetuenei laguntzeko eta gizarteratzeko ere balio dute. Horrela, benetako berdintasunaren alde egingo da herrialde guztien artean.

10. JARDUERA

Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 22. artikulua zer eskatzen du zuen ustez? Jaso taldearen ideiak.

1.
2.

11. JARDUERA

Gizarte elkartasunak zer eskatzen du?

1.
2.

ZER EGIN LITEKE?

www.pobrezacero.org web orria kontsultatzen baduzue, hainbat proposamen jasoko dituzue munduko pobrezia aurre egiteko. Idatzi bertan agertzen diren proposamen interesgarrienak eta gehitu zeuenak.

12. JARDUERA

PROPOSAMENAK	
POBREZA CERO	GURE PROPOSAMENAK
1. Ordain ezineko zorra barkatzea.	
2. Zorra garapenaren truk.	
3. Nazioarteko merkataritzaren arauak aldatzea.	

13. JARDUERA

KONPROMISOA HARTUKO DUT
Ezin gara bizi arazoak alde batera utzita. Alderantziz, munduko herritar gisa jokatu eta arazo horien aurrean ditugun erantzukizunei aurre egin behar diegu. Hona hemen pobrezia kontrako konpromiso batzuk:
1. Milurtekoaren Garapenaren Helburuak 2015. urterako bete diren egiaztatzea.
2. Espainiako BPGren % 0,7 garapenerako bideratu den ala ez ikustea.
3.

14. JARDUERA

- 14.1. Denon artean, ekintzarako proposamen bat erabakiko dugu.
- 14.2. Proposamena idatzi; gero, gure familiari eta ikastetxeari proposatuko diegu.